

**INGURUMENENKO
BILERAREN AKTA
(23.12.12)**

TOKIKO

FOROAREN

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO
AMBIENTE
(12.12.23)**

INGURUMENENKO ZINEGOTZIA:
IÑIGO URKITZA jn.

CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:
D. INIGO URKITZA

INGURUMENENKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

TÉCNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

SECRETARIA DEL FORO:
D^a ARANTZA CABEZA

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

CONSULTORA:
D^a EUGENIA ATIN

BERTARATUTAKOAK:

ASISTENTES:

TXARO ARCENIEGA and. (Basozaleakeko ordezkaria)
EDURNE GÓMEZ and. (Basozaleak ordezkaria)
IÑIGO AZKARATE jn. (Trinitarias)
KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen
Alkarteko ordezkaria)
YENNY MEDRANO and. (Getxo Enpresako ordezkaria)
EMILIO MARTINEZ jn. (Julio Caro Baroja)
JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona)
XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia
duen pertsona)
JOKIN CORTEZÓN jn. (Argia Fundazioa)

D^a TXARO ARCENIEGA (Representante de Basozaleak)
D^a EDURNE GÓMEZ (Representante de Basozaleak)
D. IÑIGO AZKARATE (Centro escolar Trinitarias)
D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de
Personas Consumidoras y Usuarías Vasca)
D^a YENNY MEDRANO (Representante de Getxo Empresa)
D. EMILIO MARTINEZ (Centro escolar Julio Caro Baroja)
D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad)
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en
Medio Ambiente)
D. JOKIN CORTEZÓN (Fundación Argia)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute:

JANIRE OCIO and. (Hirigintza, obra eta zerbitzu arloko
zinegotzia), KARMELE URQUIJO and. (Gizatiarreko
ordezkaria), JOSERRA OTEGI jn. (Ekologistak Martxan) eta
JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria).

Excusan su no asistencia:

D^a JANIRE OCIO (Concejala del área de infraestructuras, obras
y servicios), D^a KARMELE URQUIJO (Representante de
Gizatiar), D. JOSERRA OTEGI (Ekologistak Martxan) y D.
JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak).

Getxon, 2023ko abenduaren 12an, arratsaldeko zazpitan
bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian
aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

En Getxo, a 12 de diciembre de 2023 se reunió a las diecinueve
horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo,
con asistencia de los capitulares reseñados.

GAI ZERRENDA

ORDEN DEL DÍA

Bileraren hasieran Eugenia Atinek adierazi du Foroko zenbait
kidek ezin etorri izana adierazi dutela.

Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia
de algunos miembros del Foro anteriormente citados.

**1.- Ingurumeneko Tokiko Foroak 2023ko azaroaren 14an
egindako bilerako akta onestea.**

**1.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del
Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 14 de
noviembre de 2023.**

Aho batez onetsi da akta.

Se aprueba el acta por unanimidad.

**2.- Tokiko 2030 Agenda Plan berria prestatzeko lan-
dinamika (2024-2027 aldia).**

**2.- Dinámica de Trabajo para elaborar el nuevo Plan de
Agenda Local 2030 (periodo 2024-2027).**

Dinamika bat egin da bertaratutakoekin; horren bidez, Tokiko 2030 Agendaren plan berrian sartu behar diren ekintzei buruz hausnartu dute banaka eta ondoren partekatu dira.

Gaurko saioan, aurreikusitakoaren arabera plan berriak izango dituen bost ildo estrategikoetako hiru jorratuko ditugu.

HIRIGINTZA JASANGARRIA

Jokin Cortezónek proposatu du eraikinak hobetzeko lanetan inbertitzen jarraitzea, irisgarritasuna bermatze aldera. Halaber, proposatu du honako hauetan ere inbertitzea: espaloiak murrizteko, pertsonen mugikortasuna oztopatzen duten barrerak kentzeko eta berdeguneak jartzeko lanetan. Etxebizitzari dagokionez, proposatu du etxebizitza turistikoak kontrolatzea; azkenik, proposatu du hirigintza-ondarea zaintzea, eraikin enblematikoak ez galtzeko.

Xabi Buentexea proposatu du energia-efizientzia kontuan hartzea, eta hirigintzan biodibertsitatea zaintzea ere bai. Hala, besteak beste helburu hauek ezarri dira: hirigunera eramatea natura, lorategi bertikalak sortzea, polinizatzaileentzako lorategiak sortzea, inausketa gutxiago behar dituzten landareak erabiltzea, idoiak sortzea eta ardiak erabiltzea kudeatzeko. Biodibertsitateari dagokionez urbanizatutako gunetan dauden baliabideen inbentarioa egitea proposatu du.

Koldo Nabaskuesek argi eta garbi esan du EZETZ hiri sakabanatuaren kontzeptuari eta etxebizitza-mota berriak (persona bakarrekoak, gazteenak edo nagusienak) kontuan hartzeari; dena ezin daiteke eraikitzea izan, dirulaguntzak ere eman behar baitira. Horrez gain, obra berriak zero isurketakoak izan behar dira. Bestalde, proposatu du Getxo barruko garraio publikoa eskaintzea dohainik, bai eta hurbileko merkataritza sustatzea ere kanpainen, pizgarri fiskalen eta abarren bidez.

Txaro Arceniegak eta Edurne Gómezek proposatu dute arrapala mekanikoak nahiz igogailuak mantentzeko lanak hobetzea. Bestalde, adineko asko kexatu dira bankuak baxuegi egoteaz; izan ere, bankura bota behar dira eta altxatzeko zailtasunak izaten dituzte. Horrez gain, komun publiko gehiago jarri behar dira, bereziki metroko geltokietan. Merkataritzari dagokionez, suspertzea komeni da, bereziki Aldapa kalearen inguruan, ez baitago ezer, bi taberna besterik ez (lehen bazeuden saltokiak). Ildo beretik, Txarok eta Edurnek proposatu dute eraikin historikoak, armarriak dituzten baserriak eta abar zaintzea; esate baterako, Lipperheimer eraikinean harrizko sarrera kendu da eta gutzia galdu da, pena bat da.

Etxebizitza turistikoek dagokienez, Txarok eta Edurnek azaldu dute klandestinitatea kontrolatu beharko litzatekeela, bai eta lizentziarik gabeko apartamentuak ere (asko daude). Horren harira, Emilio Martinezek aipatu du Auzitegi Gorenak berretsitu duela jarduera ekonomikoak debekatzen dituzten jabeen erkidegoek jarritako apartamentu turistikoek aurkako betoa.

Yenny Medranok nabarmendu du garrantzitsua dela bermatzea udalerrri barruko irisgarritasuna nahiz saltokietara heltzeko konexioak, bai eta zenbait gunetako autobusen ordutegiak hobetzea ere. Erabat funtsezkoa da jendearentzat erosoagoa izatea udalerrian bertan geratzea Arteara joatea baino. Etxebizitzaren arloari dagokionez, Yennyk proposatu du

Se realiza una dinámica con los asistentes en la que a primero se reflexiona a nivel individual sobre las acciones que se deben incluir en el nuevo Plan de Agenda Local 2030 y luego se ponen en común todas las ideas.

En la sesión de hoy trabajaremos tres de las cinco líneas estratégicas que previsiblemente tendrá el nuevo plan.

URBANISMO SOSTENIBLE

Jokin Cortezón propone continuar invirtiendo en mejorar los edificios para garantizar la accesibilidad. También en rebajar aceras, eliminar barreras que dificultan la movilidad de las personas, incluso por las zonas verdes. En Vivienda, propone controlar la vivienda turística y por último, propone cuidar el patrimonio urbanístico para no perder edificios emblemáticos.

Xabi Buentexea propone tener en cuenta la eficiencia energética en el urbanismo también velar por la biodiversidad. Llevar la naturaleza al medio urbano, crear jardines verticales, jardines para polinizadores, utilizar plantas de menos podas, creación de charcas, incluso gestión con ovejas. Propone la realización de un inventario de recursos en zonas urbanizadas en cuanto a biodiversidad.

Koldo Nabaskues es firme con el NO a la ciudad dispersa y a que se tenga en cuenta la nueva tipología de vivienda (unipersonal, jóvenes, mayores), que no todo sea construir sino también dar ayudas en forma de subvenciones. Además, que las nuevas obras sean de cero emisiones. Por otro lado, propone un transporte público gratuito intra Getxo y también que se fomente el comercio de proximidad con campañas, incentivos fiscales, etc.

Txaro Arceniega y Edurne Gómez proponen un mejor mantenimiento de las rampas mecánicas y de los ascensores. Por otro lado, muchas personas mayores se quejan de que los bancos están demasiado bajos y por tanto se tienen que dejar caer en el banco y luego tienen dificultades para levantarse. También son necesarios más baños públicos especialmente en/ cerca de las estaciones de metro. En cuanto al comercio, convendría revitalizarlo especialmente en la zona de Aldapas donde no hay nada salvo 2 bares (antes había). Txaro y Edurne también proponen preservar los edificios históricos, caseríos con blasones, etc. Por ejemplo el edificio de Lipperheimer, se ha quitado la entrada de piedra y se ha perdido todo, es una pena.

Respecto a la vivienda turística, Txaro y Edurne explican que habría que controlar la clandestinidad, apartamentos sin licencia (que hay mucho). Emilio Martinez menciona a este respecto que el tribunal supremo ha avalado el veto a los apartamentos turísticos en las comunidades de vecinos que prohíben el uso de actividades económicas.

Yenny Medrano incide en la importancia de la accesibilidad dentro del municipio, las conexiones para llegar a los comercios, la mejora de los horarios de bus en ciertas zonas. Es de vital importancia que la gente tenga más cómodo quedarse en el municipio que ir a Artea. En vivienda, Yenny propone que haya un punto de información directo para jóvenes, para que sepan

gazteentzako informazio-puntua jartzea, jakin dezaten zein den babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko modua, non lortu dezaketen informazioa eta abar. Izugarritzko ezjakintasuna dago.

Horren harira, Iñigo Azkaratek gehitu du plan bat egin behar dela gazteek alde egin ez dezaten. Horrez gain, ingurumena erdigunean jarrira eta parkeetako biodibertsitatea (idoiak, etab.) aintzat hartuta eraiki beharko da beti. Era berean, nerabeei egokitutako parke bat egiteko proposatu du; Ingurumen Gelan jorratu zen kontzeptua eta, besteak beste, parke horretan aurrez aurre jarriko ziren bankuak. Mugikortasunari dagokionez, bat dator Getxo barruan doako autobusa eskaintzeko proposamenarekin, gutxienez 16 urtetik beharagoentzat. Azaldutakoaren arabera, komeni da ere udal-azpiegituretako irisgarritasunaren gaineko azterketa egitea (adibidez, San Nikolas liburutegikoa).

Bestalde, Iñigo Azkaratek proposatu du gazteentzako ondare-ibilbidea egitea. Iñigo Urkitzak adierazi du Turismo Sailean “Deapie” ibilbideak jorratzen ari direla, zinetan Getxoko pertsonaiaren bat joaten baita bisitariarekin batera, bisita autogidatuan. <https://www.getxo.eus/es/turismo/que-ver/deapie-las-rutas>. Adibide gisa, Emilio Martinezek “Ezagutu Barakaldo” aipatu du.

Javier Loidi bat dator Koldo Nabaskuesekin eta azaldu du hiri sakabanatuen kontzeptua ez dela ekologiaren aldekoa eta, beraz, galarazi behar dela hirigunea haztea. Punta Begoñaren berezitasuna azpimarratu du, eta adierazi du haren garrantzia nabarmendu beharra dagoela. Etxebizitzaren arloari dagokionez, Javierrek proposatu du etxebizitza hutsak betetzea sustatzea, gutxi badaude ere, eta bat dator etxebizitza-mota berrietara egokitzeko erabakiarekin. Merkataritzari dagokionez, proposatu du saltoki txikiak batzea baterako zerbitzuak eskaini ditzaten (itzulketak, ordaintzen plataformak, etab.), saltoki handiekin lehiatze aldera. Javierrek ere nabarmendu du garrantzitsua dela bizikletak, oinezkoak eta patineteak elkarrekin modu hobean egotea lortzea, “trukatutako” ibilgailuen zarataren atzetik ibiltzea eta 30eko abiadura kontrolatzea. Proposatu du lorategi ekologikoa izatea, ahalik eta ongarri gutxien erabiltzea eta, jakina, espezie autoktonoak erabiltzea.

Emilio Martinez iritzi berekoa da zarataren kontuan eta gehitu du parkean nahiz hondartzan erabiltzen diren telefonoak edo musika-bozgorailuak hots-kutsadura sortzen dutela ere bai. Emiliok ere proposatu du langileen mugikortasuna eta Bizkaibiziren erabilera kontrolatzea (batzuetan hainbat pertsona ikusten dira bizikletetan). Garrantzitsua iruditzen zaio ere udal-laguntzak egotea etxebizitza berritzeko (lehendik daudenekin bateragarriak direnak). Halaber, uniformetasun bisuala bermatu behar da eraikuntzan. Ildo beretik, saltokietako hondakinak kudeatu behar dira (jada egiten da), bai eta hiriguneetan metroko trenbideak lurperatu ere. Beste gai batzuk ere aipatu dira, hala nola auzoen arteko konexioa.

Koldo Nabaskuesek galdetu du ea baloratu ote den gurutzantziek Getxon izaten duten eragina. Iñigo Urkitzak erantzun du gurutzantziak heltzen direnean pertsona batzuek txangoak dituztela kontratatuta. Txangorik ez dutenei anezkak jartzen dizkiete Bilbora edo metrora. Portuko Agintaritzarekin

cómo acceder a VPOs, donde obtener información, etc. Hay mucho desconocimiento.

Iñigo Azkarate en este sentido añade que se debe hacer un Plan para evitar la fuga de jóvenes. También construir siempre desde el punto de vista ambiental y teniendo en cuenta la biodiversidad en los parques (charcas, etc.). Propone también hacer un parque adaptado para adolescentes, el concepto se trabajó con el Aula Ambiental, con bancos enfrentados y cosas así. En lo que respecta a la Movilidad, coincide con la propuesta de un bus gratuito por Getxo, al menos para menores de 16 años. Explica que convendría hacer también (si no se ha hecho) un análisis de accesibilidad a las infraestructuras municipales (e.g. liburutegi de San Nikolas).

Por otro lado, Iñigo Azkarate propone una ruta patrimonial para chavales. Iñigo Urkitza señala que desde Turismo se están trabajando las rutas “Deapie” donde algún personaje de Getxo acompaña al visitante en una ruta autoguiada <https://www.getxo.eus/es/turismo/que-ver/deapie-las-rutas>. Emilio Martinez pone el ejemplo de Ezagutu Barakaldo

Javier Loidi coincide con Koldo Nabaskues y explica que la ciudad dispersa es antiecológica, por lo que hay que impedir el crecimiento en el casco urbano. Destaca la singularidad de Punta Begoña y cómo debemos ponerla en valor. En Vivienda, Javier propone fomentar la ocupación de vivienda vacía incluso habiendo poca, y coincide en que hay que adaptarse a las nuevas modalidades de vivienda. En cuanto a comercio, propone que los pequeños comercios se asocien para ofrecer soluciones conjuntas (devoluciones, plataforma de pagos, etc.) para competir con las grandes superficies. Javier destaca también la importancia de mejorar la convivencia entre bicis, peatones y patinetes y por otro lado, perseguir el ruido de vehículos “trucados” y controlar la velocidad a 30 también. Propone una jardinería ecológica con un uso mínimo de productos fertilizantes y por supuesto el uso de especies autóctonas.

Emilio Martinez coincide con el problema del ruido y añade, los teléfonos/ altavoces con música que se usan en el parque/ playa y que también es contaminación acústica. Emilio propone también controlar la movilidad personal y el uso de Bizkaibizi (que a veces se ven varias personas en las bicicletas). Le parece importante que también haya ayudas municipales para la renovación de vivienda (compatibles con las existentes). También una uniformidad visual en la construcción. Importante también la gestión de residuos en comercios (que ya se hace) y el soterramiento de las vías de metro en zonas urbanas. Otros temas que ya se han mencionado como la conexión entre barrios

Koldo Nabaskues pregunta a ver si se ha valorado el impacto del turismo de cruceros en Getxo. Iñigo Urkitza responde que cuando llegan los cruceros algunas personas tienen contratadas excursiones. A los que no tienen excursiones les ponen lanzaderas a Bilbao o al metro. Se está trabajando con la

aztertzen gabiltza hainbat gurutzatze aldi berean heltzen direnean bisitariak Getxoko metroan uzteko aukera.

Edurne Gómezek Galeako gotorlekuagatik eta errotagatik galdetu du. Iñigo Urkitzak erantzun du Punta Begoña Fundazioaren barruan jarraituko dutela.

BALIO NATURALAK

Emilio Martínezek proposatu du aplikazio bat sortzea herritarren zientziarako, honako hauek identifikatze aldera: espezieak, aurkikuntzak eta biologiarekin zerikusia ez duten gauzak. Aitorpenen batekin saritu ahalko da parte-hartzea.

Emiliok nabarmendu du garrantzitsua dela jarraitzea Bolue babesteko lanak egiten eta Larrañazubira zabaltzea, txilardiak, idoiak eta abar ere babesteko. Ezagutzen ez dena ez da baloratzen eta, hortaz, proposatu da kanpainak egitea ondare biologiko nahiz geologikoa ezagutarazteko, esate baterako QR kodeen bitartez. Klima-aldaketari dagokionez, Emiliok proposatu du jarraitzea urbanizazio-ildo berrian, hau da, gerizpetan dauden guneak, pergolak, altuera askotariko bankuak eta abar jarritz.

Javier Loidiren ustetan, espezialitate edo helburuen arabera eratzen doazen elkarteak gehiago sustatu daitezke eta aurrera egin daitezke zabalkundearen, ekitaldiak, erakusketak, hitzaldiak eta abar eginez.

Javier Loidik proposatu du habitat naturalak berreskuratzea; izan ere, urbanizatu barik geratzen dena oso degradatuta dago eta, hortaz, komeni da horiek hobetzea eta habitat naturalak lehengoraztea. Lehenik eta behin habitataren kartografia egin beharko litzateke eta Eusko Jaurlaritzak egindako 90eko hamarkadakoarekin alderatu, ondoren beste mapa bat egiteko udalerriko habitatak adierazita. Habitatak lehengoratzeko politika egin behar dugu, naturalizazioaren eta biodibertsitatearen alde. Azkenik, plan bat egin beharko litzateke kartografiaren ondoren.

Bestalde, itsaslabarretako habitatei dagokionez, komenigarria da babestutako gune gehiago mugatzea eta, horretarako, orain dauden mugak handitu edo aldatzea.

Ildo beretik, espezie babestuei eta espezie inbaditzaileak nahiz exotikoak desagerrarazteari lotuta gaur egun egiten diren lanak egiten jarraitu beharra dago. Kontu polemikoa bada ere, ez da baztertzen lursail jakin batzuetan erretze kontrolatuak egiteko aukera.

Iñigo Azkaratek proposatu du eskola-ikasleek parte hartzea espezie zaurgarriaren bat edo galzoriko espeziearen bat babesteko jardueraren batean. Era berean, ahal den neurrian, udalerriak bultzatu beharko luke eskolak edo eskolako patioak naturalizatzea.

Klima-aldaketari dagokionez, jadanik bertan ez badugu, aintzat hartuta kostaldean gaudela, proposatu du plan orokor bat izatea aurreikuspenak identifikatzeko, zeina udalerriko askotariko elkarteak elkarlanean arituz egingo baita.

autoridad portuaria para que sobre todo ante la llegada de varios cruceros a la vez, les dejen en el metro en Getxo.

Edurne Gómez pregunta por el fuerte y el molino de la Galea. Iñigo Urkitza responde que se quedan dentro de la Fundación Punta Begoña.

VALORES NATURALES

Emilio Martínez propone crear una app para la ciencia ciudadana, para identificar especies, hallazgos, e incluso cosas que no tengan que ver con biología. Se podría premiar a la participación con algún reconocimiento.

Emilio incide en la importancia de continuar con las labores de protección de Bolue- ampliar a Larrañazubi, también proteger los brezales, las charcas, etc. Lo que no se conoce no se valora, por lo que se proponen campañas para dar a conocer el patrimonio biológico y geológico, a través de códigos QR, por ejemplo. En cuanto al cambio climático, Emilio propone continuar en la nueva línea de urbanización, con espacios con sombra, pérgolas, bancos de diferentes alturas, etc.

Javier Loidi opina que se puede avanzar en el fomento de diferentes asociaciones que vayan constituyéndose por especialidades u objetivos y también avanzar en la difusión con la realización de eventos, exposiciones, charlas, etc.

Javier Loidi propone tender a la recuperación de hábitats naturales, ya que lo que queda de no-urbano está todo muy degradado, conviene que se mejore y que se restauren los hábitats naturales. Primero se debería hacer una cartografía de los hábitats, compararla con la de Gobierno Vasco de los años 90, y posteriormente crear un nuevo mapa de los hábitats del municipio. Debemos hacer política restaurativa de los hábitats, camino a la naturalización y la biodiversidad. Finalmente, se debería elaborar un plan después de la cartografía.

Por otro lado, en cuanto a los hábitats de los acantilados, convendría delimitar nuevas zonas protegidas, ampliando o modificando los límites.

También se debe seguir con las labores actuales con relación a las especies protegidas y eliminación de especies invasoras y exóticas. No descartaría que, aunque polémico, se pudiera hacer quemadas controladas en ciertos terrenos.

Iñigo Azkarate propone que los y las escolares participen en alguna actividad vivencial de protección de alguna especie vulnerable o en peligro de extinción. También en la medida que sea posible, el municipio debería fomentar la renaturalización de las escuelas o de los patios escolares.

En relación al cambio climático, si no lo tenemos aun, y dado que tenemos costa, propone contar con un plan general que identifique las previsiones y que cuente con la colaboración de las diferentes asociaciones del municipio.

Yenny Medranok proposatu du lorezaintzako lan-ildoak sendotzea, parke batzuetan sastraka asko baitaude, hala nola Teilagorri eta KZgunea dagoen tokian. Bestalde, Kirol Portuko inguruan ere areagotu behar dira garbiketa-lanak; izan ere, pertsona batzuek zaborra eta hondakinak uzten dituzte jatekietan bazkaldu ondoren eta hondakin horiek itsasoan amaitzen dute. Klima-aldaketari dagokionez, Yennyk proposatu du panel fotovoltaikoak jartzea erraztea eta babestea, hala nola dirulaguntzak emanaz edo zenbait laguntzaren burokrazia arinduz.

Eduarne Gómezek eta Txaro Arceniegak proposatu dute haurtzaroan hastera ingurumena jorratzen; horiek horrela, aipatu da udalekuak edo negulekuak antolatzea umeek jakin dezaten nondik datorren esnea, baratzeak izatea eskolan umeek erein dezaten eta karraskariak nahiz oiloak ikusi ditzaten, landare autoktonoak ezagutu ditzaten eta landatzen ikasi dezaten, bai eta hondakinak biltzeko irteerak egitea ere. Hortaz, oro har, helburua guztia normalizatzea da. Horregatik guztiatik, Gobela ibaia garbitu behar da ihiz betetzen denean, ahateek igeri egin ahal izateko.

Koldo Nabaskuesek proposatu du foroko beste kide batek aipatu duen herritarren zientzia joratzeko aplikazioa administrazioarekiko harreman guztietan erabiltzea, aurrekontuetarako ere bai. Klima-aldaketari dagokionez, Koldok proposatu du zabalkunde sakontzea. Errealitate oso urrun gaude eta jendea kontzientziatzea lortu behar dugu. Ados agertu da ere panel fotovoltaikoak ezartzea bultzatzearekin, burokrazia murriztearekin eta eraikuntza berrietarako eskakizun gisa ezartzearekin.

Xabi Buenetxea proposatu du Bolue ibarra eta itsaslabarrak babesten jarraitzea, baina horrez gain mikrohabitaten katalogoa sortzea, bertako fauna eta flora erabat babestu daitezke. Mikrotoki horiek oso garrantzitsuak izan daitezke. Azpimarratzekoa da ere espezie bat babesten dugunean —apo lasterkaria, esaterako— ez dugula soilik espezie hori babesten, beste asko baizik, hala nola suge leuna. Aterki-espezie deritze eta horiek babesteak berekin dakar haiei lotutako ekosistema osoa kontserbatzen laguntzea.

Xabik nabarmendu du ere anfibioak babesteko garrantzia: oso arazo larria dago eta espezie batzuk galtzen gabiltza. Ez gara espeziea desagertzeko zain egon behar mugitzeko hasteko. Anfibioek asko sufritzen dute, azaletik xurgatzen dute eta uraren pH-n edozein aldaketa dagoenean hiltzen dira eta desagertzen dira. Egin behar dugun lehenengo gauza da anfibioen oraingo egoera ezagutzea. Halaber, Ingurumen Arloak eta Aldundiak batera egin behar dute lan anfibioak toki jakin batzuetara lekualdatzeko eta populazio batzuk sustatzeko, betiere informazioarekin.

Ez dugu arreta galzoriko espezieetan bakarrik jarri behar, haratago joan behar gara. Haien habitata mantentzen jarraitu behar dugu.

Xabik ere proposatu du bidexken sare bat sortzea, baina aurretik oso kudeaketa egokia egin ostean. Oso arriskutsua izan liteke: karga eta babes bereziko eremuak izan behar dira beti kontuan, eta beti ahalegindu behar da ingurua ez aldatzen.

Yenny Medrano propone reforzar las líneas de trabajo en jardinería puesto que algunos parques como el del Tilo y donde el KZgunea, hay mucha maleza. Por otro lado, reforzar también las labores de limpieza del entorno en el Puerto Deportivo puesto que algunas personas dejan basura y residuos tras comer en los restaurantes y éstos acaban en el mar. Con respecto al cambio climático, Yenny propone facilitar y apoyar la instalación de paneles solares, por ejemplo, a través de subvenciones o aligerando la burocracia de ciertas ayudas.

Eduarne Gómez y Txaro Arceniega proponen trabajar el medio ambiente desde la infancia, hacer colonias, que sepan de donde viene la leche, huertas en el cole, que siembren, que vean roedores, gallinas, que conozcan las plantas autóctonas, que sepan como plantar, también que se hagan salidas a recoger residuos, que se normalice todo. Por otro lado, limpiar el río Gobela cuando se llene de juncos para que los patos puedan nadar.

Koldo Nabaskues propone que la App de Ciencia Ciudadana propuesta por otro miembro del Foro, sea para todas las relaciones con la administración, incluso también para los presupuestos. Con respecto al cambio climático, Koldo propone profundizar en la divulgación. Estamos muy lejos de la realidad y hay que buscar la forma de concienciar a la gente. También está de acuerdo con facilitar las implantaciones de paneles solares, reducir burocracia, y que sea una exigencia en nuevas construcciones.

Xabi Buenetxea propone que se sigan protegiendo el valle de Bolue y los acantilados, pero también crear un catálogo de microhábitats, con protección absoluta por su fauna o su flora. Estos microlugares pueden ser muy importantes. También descartar que cuando protegemos a una especie, por ejemplo, al sapo corredor, no solo protegemos a ésta, sino que se protegen muchas otras como por ejemplo la culebra lisa. Son las llamadas especies paraguas, protegiéndolas a ellas, se contribuye a la conservación de todo el ecosistema asociado.

Xabi destaca también la importancia de proteger a los anfibios puesto que hay un problema gravísimo y algunas especies se nos van. No debemos esperar a que no haya para ponernos las pilas. Los anfibios sufren mucho, absorben por la piel, y ante cualquier cambio en el pH del agua, mueren y desaparecen. Lo primero que debemos hacer es conocer el estado actual con respecto a los anfibios. También trabajar conjuntamente (Medio Ambiente y Diputación) para la traslocación de los anfibios a ciertos lugares, fomentar algunas poblaciones siempre con información.

No debemos pararnos con las especies en peligro de extinción, debemos ir más allá. Debemos seguir manteniendo sus hábitats.

Xabi también propone hacer una red de senderos pero con una gestión previa muy buena. Podría ser muy peligroso, se debe tener en cuenta la carga, las zonas de especial protección, intentar siempre no variar el entorno. Propone poner niveles de

Proposatu du irisgarritasun-mailak ezartzea, jendeak jakin dezan zein den bidexkaren erosotasun-maila, hau da, lahardirik ote dagoen edo naturalagoa ote den jakiteko.

Igarobide ekologikoari dagokionez, Xabik uste du oso garrantzitsua dela jada aukeratutako habitatak bateratzea, kontserbatzea eta horien berri ematea. Oso argi izan behar dugu zer den igarobide ekologikoa: Pasealekua izango al da? Bisitatzeo aukerarik egongo al da? Zer da? Zehaztu behar da eta horren berri eman.

Herritarren zientziari dagokionez, gauzak egiten hasi dira jada: deialdia egin zaie herritarrei eta 30-40 lagunek hartu dute parte; enarekin, sorbeltzekin eta abarrekin egin dute lan.

Horiek horrela, udaberri honetan GISeko tailer bat sortuko da habiak identifikatzeko. Tximeleten eta apo-hontzen tailer pilotuak ere egingo dira. Ondo egongo litzateke app bat izatea. Herritarren zientzia parke eta lorategietara eramatea egiten diren oharrak aintzat hartuta. Harrapariak eta botanika jorratu daitezke, argazki-maratoiak antolatu, intsektuenak, ornitologikoak, jarduera sustatzea, etab.

Azkenik, foroko bi proposamenei erantzunez, Xabi Buenetxea azaldu duenez, Gobela ibaian ez baldin badago landarerik, ez da faunarik egongo (arrain hiruarantza, esate baterako). Gainera, ihiak ibaiaren abiadura moteltzen du. Beraren ustetan, oso garrantzitsua da herritarrei jakinaraztea zergatik ezin daitekeen ibaiaren ibilgua ukitu; zabalkunde handiagoa egin behar da abandonutat jo ez dadin. Gauza bera parkeei eta lorategiei dagokienez, abandonatuta daudela baitirudi. Ez da abandonua, natura laguntzea baizik. Kontua da espazio basatiak uztea intsektuak ugaritzea bultzatzeko. Parke pilotuak daude, baina berriro eman behar da horien berri.

Bestalde, espezie autoktonoak behar ditugu, hazi autoktonoak. Egiten dugunaren garrantzia nabarmendu behar da, batzuetan gauzak egiten ditugulako eta ez direlako ezagutzera ematen.

Jokin Cortezónek proposatu du kultura jasagarria sortzea: kultura ekologikoa, non elkarlanean ariko baitira herritarrak, ikastolak, hirugarren sektorea eta adinekoak. Bisita zehatzak antolatzea, kamera bat 24 orduz izateko aukera, gazteek izena jartzea, kultura eta ilusioa sortzea. Proposatu du ere sare sozialak erabiltzea gai horietarako.

Hiriko zuhaitzak moduren batean kontrolatzen/ikuskatzen ote diren galdetu da, eta Josu Ateka erantzun du lorezaintza-zerbitzuan zuhaitzen gaineko jarraipena egiten dela eta kontrolatzen dela onddorik, usteltzerik, adar lehorrik eta abar ote dagoen. Horrez gain, udalak tomografoa dauka orain, eta horren bidez zuhaitzaren erradiografia egiten da, zuhaitza mantenduko ote den baloratze aldera. Javier Loidiren ustetan, oso lan fina egiten da, azken urteotan ez baita ezer gertatu nahiz eta geroz eta ugariagoak izan haize-boladak, ekaitzak, etab.

BALIABIDEAK

Ez dago astirik ideiak partekatzeko, baina honako ideia hauek jaso dira Post-it paperetan:

accesibilidad para que las personas conozcan el grado de comodidad del sendero, si hay más zarza, si es más natural.

En cuanto al corredor ecológico, Xabi cree es muy importante unir los hábitats ya seleccionados, conservar e informar. Hay que tener muy claro lo que es el corredor ecológico, ¿va a ser un paseo? ¿Se puede visitar? ¿Qué es? Hay que definirlo e informar.

Con respecto a la ciencia ciudadana, ya se están haciendo cosas, en un llamamiento a la ciudadanía, más de 30-40 personas han colaborado y han trabajado con golondrinas, vencejos, etc.

Para esta primavera también se va a crear un taller de GIS para identificar los nidos. También con mariposas, y el búho altillo, talleres piloto. Que haya una app estaría bien. Llevar la ciencia ciudadana a parques y jardines a través de las observaciones que se hacen. Se puede meter rapaces, botánica, crear maratones fotográficos, de insectos, ornitológicos, fomentar actividad.

Por último, en respuesta a dos propuestas del Foro, Xabi Buenetxea explica que, si en el río Gobela no hay vegetación, entonces no hay fauna (e.g. el pez espinoso). Además, el junco frena la velocidad del río. Pero le parece muy importante informar a la ciudadanía de por qué no se puede tocar el cauce del río para que no se perciba como abandono, se debe hacer más difusión. Lo mismo con los parques/ jardines que parecen abandonados. No es abandono, es dar la mano a la naturaleza. Es dejar espacios silvestres que fomenten la proliferación de insectos. Hay parques piloto, pero de nuevo hay que informar.

Otro apunte, necesitamos especies autóctonas de semilla autóctona. Y poner en valor lo que hacemos, que a veces hacemos cosas y no trascienden.

Jokin Cortezón propone crear cultura sostenible: una cultura ecológica con colaboración de la ciudadanía, ikastolas, tercer sector, mayores. Organizar visitas concretas, la posibilidad de tener una cámara 24 horas, que chavales pongan nombre, crear cultura e ilusión. Propone también la utilización de redes sociales para estos temas.

A la pregunta de si se audita/ controla de alguna manera el arbolado urbano, Josu Ateka responde que el servicio de jardinería hace un seguimiento de los árboles, vigilando la presencia de hongos, pudriciones, ramas secas, etc. Además, ahora el Ayuntamiento cuenta con un tomógrafo, con el que se hace una radiografía del árbol y con ello se valora si aguanta el árbol. Javier Loidi considera que el trabajo que se hace es muy bueno ya que no ha pasado nada estos años y cada vez son más frecuentes los episodios de viento, tormenta, etc.

RECURSOS

No queda tiempo para la puesta en común pero las ideas recogidas en los post-its son las siguientes:

Ura:

- Euri-urak aprobetxatzea (euri-urak eta hondakin-urak bereiztea)
- Euri-urak biltzea ureztatzeko
- Hornidura-sarea mantentzea
- Ur-kontsumoa murrizteko kontzientzia sortzea
- Parke publikoetako iturriak sustatzea
- Anfibioetarako idoiak eta habitatak
- Ibilgu txikiak berrikustea (faunari, botanikari eta egiturari dagokienez)

Energia:

- Energia murrizteko kontzientzia sortzea
- Elektrizitate-ekoizpena sustatzea panel fotovoltaikoak erabiliz (teilatu oro panelekin)
- Energia-erkidegoak bultzatzea (Barakaldoko eredua)
- Energia berriztagarriak ahal den heinean bultzatzea hiriguneetan/erkidegoetan, etab.
- Erkidegoko autokontsumoa
- Energia berriztagarriak sustatzea azpiegitura publikoetan
- Leihoak aldatzeagatik laguntzak mantentzea (energia aurrezte)

Hondakinak:

- Hondakin gutxiago sortzeko kontzientzia sortzea
- Birziklapen organikoa sustatzea eta birziklatze-prozesua optimizatzea
- Prestakuntza eta informazioa eskaintzea saltokiei hondakinak behar bezala sailkatu daitezen
- Sailkatzeko bitartekoak ezartzeko laguntzak (zabor-ontziak)
- Ecoembesen monopolioa haustea: “balioa” itzultzen duten makinak sortzea, tokiko saltokietan erosteko deskontuak izateko.
- Jatetxeetan konpostatzeko baliabideak (poltsak)
- Askotariko espazioetan prestakuntza/informazioa ematea
- Aurrera egitea jatorrian egiten den bereizketan – Pizgarriak
- Garbigune – utzitako hondakinak

Zarata:

- Hots-kutsadura murriztea (autoak eta motorrak)
- Gune gatazkatsuen mapa eta lokalek bete beharreko ordutegia
- Izugarritzko bolumena izaten duten bozgorailuak kontrolatzea parkeetan, hondartzetan, etab.
- Gune zaratatsuak aztertzea eta horiek murrizteko modua ezartzea
- Zarata (musika) kontrolatzea gune publikoetan nahiz hondartzetan egindako barbakoetan eta jaietan.

Airea:

- Airearen kalitatea neurtzea – kalitate txarrerako konponbidea.

20:55ean, bilera amaitutzat jo da.

Agua:

- Aprovechar las aguas pluviales (separar las pluviales de las residuales)
- Recolección de aguas pluviales para riego
- Mantenimiento de la red de abastecimiento
- Concienciación para reducir el consumo de agua
- Fomentar las fuentes en parques públicos
- Charcas y hábitats para anfibios
- Revisar los pequeños cauces (faunística, botánica y estructural)

Energía:

- Concienciación para reducir el consumo de energía
- Fomento de la producción eléctrica con paneles solares (cada tejado con sus paneles)
- Potenciar comunidades energéticas (modelo de Barakaldo)
- Apoyar en lo posible las energías renovables en núcleos urbanos/ comunidades, etc.
- Autoconsumo comunitario
- Fomento de las renovables en las infraestructuras públicas
- Mantener ayudas para cambio de ventanas (ahorro energético)

Residuos:

- Concienciación para reducir la generación de residuos
- Fomento del orgánico y optimización del proceso de reciclaje
- Formación e información al comercio para una buena clasificación de residuos
- Ayudas para implementar medios de clasificación (cubos de basuras)
- Romper el monopolio de Ecoembes: crear máquinas que devuelvan “valor” para descontar en compras de comercios locales
- Compostaje para restaurantes (bolsas)
- Formación/ información en los distintos espacios
- Progresar en la separación en origen – Incentivos
- Zona Garbigune- residuos abandonados

Ruido:

- Reducir la contaminación acústica (coches y motos)
- Mapa de zonas conflictivas y cumplimiento de horarios de locales
- Controlar altavoces con música de gran volumen en parques, playas, etc.
- Análisis de zonas ruidosas y cómo disminuir
- Control de ruido (música) en fiestas y barbacoas en zonas públicas y playas

Aire:

- Mediciones de calidad del aire- soluciones a la mala calidad

A las 20:55 horas se da por finalizada la reunión.